



1988, Otsaila



egiten ahalik eta hobetoena. Eta herriak partizipatzea holako gauzatan oso importantea da."

Eta zein MUSIKA baino laguntzaile hobe: "Oso ondo dago musika izate. Horrek animatzen du dena. Guk, geuri ere, musikarik ez bagenu ez ginateke hainbeste mugituko. Musika asko izate, hori bai dela onal!."

Irakurri duzu errezeta ihauteri hauetarako. Hori bai, nola moztorrotu behar duzun ezin diozu inori galdetu. Guk talde bereko amona Ekoliri galdetu diogunean honako hau erantzun digu: "Secreto sumarisimo".

Tx. S.

OHARRAK

TXANDAKO OKINDEGIAK

Otsailak 21: Garmendia
28: Martine
Martxoak 6: Arratibel
13: Garmendia
19: Martine
20: Arratibel

EUSKARAZKO MEZAK

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 8etan haurrentzat Portuan.
7,30etan Portuan.

IGANDEETAN:

Goizeko 8,30etan Betherranen
9etan Amuten
9,30etan Guadalupen
11etan Portuan

TXANDAKO BOTIKAK

Otsailak 15 - 21: Mai
22 - 28: Iraola
29 - 6: Erauskin
Martxoak 7 - 13: Mai
14 - 20: Iraola
21 - 27: Erauskin

"HONDARRIBIA" ALDIZKARIA

Argitaratzailea: Hondarribiko Udal Euskara - Kontseilua.

Erredakzio Kontseilua: Jose Juan Bereau, Koro Eraso, Iñigo Etxebeste, Maria Jesus Garin, Martin Iturbe, Juan Antonio Letamendia, Mikel Mariskal, Jesus Mari Mendizabal, Fermin Olaskoaga, Txomin Sagazazu, Juan San Martin, Izaskun Ugarte, eta Mikel Zuazabitia.

Fotokonposizioa: Irudi, Donostia.

Inprimategia: Rogelio Fernandez. Juan Arana 27, Irun.

Legezko Gordailua: S.S. 122/86.

SORMENA ETA NORTASUNA

Askotan esaten da lehengo garaia gaurkoak baino okerragoak zirela eta gauza askotan egia da, baina gure uma garaiko bizimodu hark bere alde onak ere eskaintzen zizkigu: batetik gaurko umek baino denbora gehiago igarotzen genuen kalean gure kaxa, bestetik ez genuen telebistarik, ez eta ikastoletako programazioa betebeharrak sortzen duen tentsiorik. Bestalde, exkax xamar bizi beharrak asko laguntzen zizun bakoitzak zekarren sormen dohaia eta kreatibitatea agertzen. Begira nola.

Amatxoka jolastu nahi bagenuen, adibidez, panpina sortu egin behar zen. Nola? Bada, zapi txuri batez patata haundixko bat bildu, begiak bi leiko txuri edo gorri ziren, azenorio mutur bat sugurra, eta laranja azalaren barruko txuritasunean nahi bezainbat hortz marraztuz. Gero, gure amets, iduripen eta sentimenak batutik, ez zegoen guretzat panpin ederragorik. Pilota nahi genuela? Ba, berdin. Sortu egin behar izaten zen. Goma eta lan pusketak nahasi eta borobiltzen borobiltzen joan, ahalik eta pilotaren bixitasuna lortu arte. Mutilak berdin, Itze batzuek lau errueda eta soka mutur batekin, a ze nolako goitiberak egiten zituzten. Ikustekoa zen haien ialetasuna jira-biretan soka mutur haiekin.

Gizon mailan berdin. Bakoitzak zeukan kreatibitatea eta trebetasuna askotan bere etxe atarian agertzen zuen. Haietako bat Xeberro amugilea zen. Arrantzarako amuak egiten zituen San Pedro kalean. Arranparez egindako mahai berexi bat, eta bi edo hiru lagun mahai haren inguruan: berri emaleak. Haietaz belarriak eta mingaina zituen, baina begiak eta eskuak bere

lanarentzat. Aurreraxeago, Azken Portuan, langostak harrapatzeko kaiolegileak. Kaiola haiek maliziaz bateak ziren: behin langosta barrenean, ez zeukan ateratzerik. Lan gaiak, makila mota berexi bat, labana, itze eta mailua ziren! Ikusten zen pila ederrik!

Nola ahaztu Xumeta bat txipiroi amuak hariarekin koloratzen. Gure ume begiek berexiki maite zuten lan hura, iduri bai zuen jolastan ari zela, Izugarria zen haren trebetasuna! Hartzen zuen bere bi eskuaren erdian txipiroi amua eta kolore bixi-bixiko bi edo hiru hariarekin estali behar izaten zuen lerroz lerro, bat ere gaineztatu gabe. Eta bai lortu ere!

Baina horra! Joan zitzaigun Hondarribiko egoera hura! Eta berarekin, nure, iduri bai zuen jolastan ari zela, Izugarria zen haren trebetasuna! Hartzen zuen bere bi eskuaren erdian txipiroi amua eta kolore bixi-bixiko bi edo hiru hariarekin estali behar izaten zuen lerroz lerro, bat ere gaineztatu gabe. Eta bai lortu ere!

Baina horra! Joan zitzaigun Hondarribiko egoera hura! Eta berarekin, nure, iduri bai zuen jolastan ari zela, Izugarria zen haren trebetasuna! Hartzen zuen bere bi eskuaren erdian txipiroi amua eta kolore bixi-bixiko bi edo hiru hariarekin estali behar izaten zuen lerroz lerro, bat ere gaineztatu gabe. Eta bai lortu ere!

LOURDES ZUBELDIA



Hondarribiko amugileak.

• Aurreko alean aipatu genuen irregulartasunik bazegoela urbanismo asuntuetan. Badiudi zertxobait bazegoela. Goizuteko bigarren faseko lanak gelditu erazi ditu Udaletxeak. Honek dioenez, hasi diren lan hauek Urbanismo-ko Plan Orokorren arauak hausten ditu.

Sei etxe bizitza egiteko baimena eman bazitzaie, 25 etxe bizitza-villa eraiki zituzten lehen fasean eta oraingoan beste 18 etxe bizitza eraikitze-ko asmoa zuten.

• *Noiz arte jarraituko du, dagoen bezala Butroi ibiltokiko paretak?*

• Portuan eta Butroi ibiltokiko etxe eraikitarako arautegi bat onartu du Udaletxeak. Honek dioenez 12'80 metro eta 13'35 metro izango dira gehieneko altuerak.

• Udaletxeak 2.440 metro karratu gehiago eskatu dizkio MOPUri Polikiroldegia eraikitze-ko. Lur hauek 30.000 metro karratu betetzen dituzte Ondartza futbol zelaiarekin batean.




• Gure Borda taldea izan da aurtengo Olentzero lehaiketaren irabazle. Bertan beste hiru taldek parte hartu zuten: Amute-Kosta, Surbesta eta presoan aldekoa.

• Gabon hauetan beste talde bat agertu da gure kaleetan zehar kantari, Arrantzale Zaharren Elkarteak hain zuzen. Ez zen makala izan atera zuten

karroa ere. Aupa mutilak, eta segi hortan!

• Arrosela? Bai, entzuna dugu honela izena zuela Hondarribiko arrantzaleak gabonetako jaietan jaten zuten arrai batek.

Mikel.



aldera alabanda emanda duen bestea berriz, Demetrio saltseroa dugu.

— JOXEMARI: Zahartzen hasia naizela esango duk, bainan, denbora aurrera zia, hi!

— DEMETRIO: Ez duk, ez, bi aldiz esan beharrik. Bestela ez genizkiken honelako pasiorik emateko denborik edukiko.

— J: Oroitzen ahal haiz, homengo baxter garziak hau bezalako karabinero garitzat josirik zeuden garai haiek?

— D: Hi baino hobeto!

Hok ere baziaitek, hau eta hura (puntala aldera seinaltatuz) beste-rik ez dituk gelditzen.

— J: Bai, hala duk. Ez duk asko, Benta zaharreko beste hura ere bota zitekela, Horiek ere gure kintakoen modura, banaka-banaka, erortzen joa-ki dituk.

— D: Makinat pixa zarrastara jaso dizkitel paretia horiek!

— J: Kontrabando mordoxka ederra ere pastzena ikusia duk.

— D: Etzak pentsa, bainan heuren zahartzaro honetan zerbizio ederra egiten zigutek eudi zaparrada zakil horietaz girixitzerakoan.

— J: Bai. Txarrena ordea hirekin joan behar diatela girixira, eta ez sa-soi batean bezala marmota eder batekin.

Mikel Mariskal.

MIRENTXUKO GARITAN

Momentu batetik bestera eudia egingo ote duen arratsalde goibeltzu horietako batean, aitzakirik ez dagoenean bezala, badijoaz Mirentxuko parajetik, bi aiton ttapa-ttapa pasiuian. Hauek ere, arrantzale guztiek bezala ezin diote ihes egin kresal usainari.

Nork daki noiz erositako kapeluak ederki kokatuak dituztekarik, bakoitzak bere modu berezian, noski!

Dagoen argitasun guztia jaso nahian edo, goraka poxar bat altxia daraman hori Joxemari da. Makinabat andesa hatzemana bere garaietan, Amonak erakutsi zion bezala, eskubi



ALBERTO LASA

H: Zure atta ere musikoa zen...

A: Bai, orduan banda municipal zen, eta elkarren artean haseratu ziren, eta orduan bi banda egin zituzten: Banda Municipal eta Banda Olearso. Ta nere atta Olearso sartu zen, klarinetea joka. Txistua ere bai, jotzen zuen. Miñon 29 urtekin estomakan mina zuela ta, galezi egin zituen musika jotzea. Utzi zuen miñon denborakin berriro jo zuen txistua.

GERRA

H: Gerra etorri zenean familiarekin batera Hendaiara itzuri joan behar izan zenuen. Bada Hendaiako fotografia bat illustrations errebitan...

A: Bai, bada fotografia frantses bat, ni Hendaiako plaiain. Ondarraizten ez, bestean. Ni gabardina zahar batekin flauta ta txistuakin, Frantziara fan miñon lehen hartu nituen etxetik...

H: Ta hor hasi zenuen 6 urte iraun zuen buelta: Hendaiatik Frantziara, gero Bartzelonara, berriz Frantziara, eta familiarekin bueltatu zinenean Jacan preso. Eta handik Algeciras eta Córdoba Cerro Murianon Batallón de Trabajadores... Han ere musika-afizioak asko lagundu zituzun...

A: Batallón de Trabajadoresen nintzenean, Cerro Murianon deitu zian komandanteak eta esan zian: Me tienes que hacer un coro y una banda. Hartu nituen eskuldun batzuek, hamabi edo hola, ta egin nuen koro txiki bat eta banda. Eta meza kantatzen genuen. Eta komandanteak: Te neis que ir a la catedral de Córdoba a cantar. Ta joan ginen.

Jarri ziguten bajakin, minez bezala, ta ospitalera kantore denak. Ta joaten ginen katedralera ensaiatzera. Han bazen organista, organo eder bat eta armonio bat. Jarri zen armonioan organista, gu kantari, eta harek: ¡esto merece una cosa mejor! Ta jo zuen organoa.

ETXERA

H: Sei urteak pasata bueltatzen zera etxera. Irunen gerra aurreko lana, eta Hondarriban berriz musika. Bandako direktoreari eman zenion flauta...

A: Gerra hasi zenean flauta nerekien Frantziara eman nuen, nerekien batera buelta ibili zen, nezadidea gogorak pasatu genituen, miñon ez nuen saldu. Klaro, flauta ez zen gurea, eta sei urte barruan direktoreari entregatu nion. Esan nion ia posible nuen berriro jotzea, ta ezetz, klarinetea eman zidan.

Hori izandu zen oktubren azkeneko, o nobienber hasieran. Ta Santa Cecilia eguneko jo zuen bai, klarinete terçero.

ORFEOIA

H: Orduan zen Orfeón Ondarribi, edo oraindik ez?

A: Ez, oraindik ez. Gero etorri zen honontz apaiza organista, Don Raimundo



Alberto Lasa, 1. txistua eta banda zuzendaria; (1959.ko

Arrizabalaga, musiko polita, eta harek egin zuen lemixiko orfeioa. Koriko jendearekin emakume batzuek hartu zituen, zertik elizan triplekin ibiltzen zen beti.

Eta Don Raimundok egin zuen denbora gutxi. Hura joan zenean nik hartu nuen.

Orfeioa ez zen oso ona, orain Eskifaikin konparatuta, biñon denak lagunak. Hamar edo hamabi urte egin zituen. Kontzertu politak egiten genituen, kanta bastante zailak eta Sorazabalek dirigitu zigun bi aldiz.

H: Txistulari Bandara ere bueltatu zinen...

A: Bai, ni etorri nintzenean Gabriel Aranetak jotzen zuen bigarrena Fermín Azpiakuzin. Biñon aspertu egin zen eta utzi egin zuen. Orduan sartu nintzen ni berriz.

UDALETXEA

H: Gerra bukatu ezkerotzik linternero-pintore lanetan segitzen zenuen, gerra aurretik bezala. Biñon egun batean Udaletxean lanean hasitzeko aukera ere izan zenuen...

A: Orfeioan ibiltzen nintzen direktore, ta Santa Cecilia egunean Sagarazuk ezan zidan: ¿Alberto, no quieres trabajar en el Ayuntamiento? No sé... si pagan bien... Ya consultaré con la madre. Ta hola sartu nintzen 46an.

Ta hor aritu nintzen jubilatuta arte.

Eta musika kontuan beti ensaioak, edo Orfeioa, edo Bandakoa, edo... astean hiru edo lau ensaio. Gero sartu nintzen profesore, eta Director de Banda.

BAILABLEAK

H: Garai hartan Bandarekin jotzen zenuen kontzerturik?

A: Kontzertu gutxi jotzen genun, bailableak gehiago. Beste denbora batzuek ziren, jende guzia etortzen zen Alamedara. Bederatzik pieza bakarrik jotzen genituen: hiru hasieran, deskansuan txistua. Gero beste hiru, txistua, eta bukatzeko beste hiru. Eta txistuakin nola ibiltzen zen jendea dantzari! Azkenaldere ez, biñon lehenogoi

IHAUTERIAK

H: Zuk ezagutu zenituen Karnabalak gerra aurretik, nolakoak izaten ziren?

A: Gerra aurretik jendea izaten zen Kale Nagusiak, ta txistua! Aste guztian tuntuña: lau pieza bakarrik jotzen genuen, Karnabaleako zortzikoa, fandango, ariñ-ariña eta biribiketa. Eta Porturik jende asko etortzen zen Kale Nagusira.

H: Orduan ere izaten omen ziren jolasak...

A: Portuarrak etortzen ziren bere arrantzako kamelakin, ta arrantzan bezala egiten zuten PIKO-PIKO: arrantzalez jantziak etortzen ziren, jartzen ziren Pasaderan eta pikua jarri amuan. Pikua hartu behar zen ahoakin. Eta eskuakin hartzen zuenari makila batekin jo.

H: Jendea jantzitzen zen Karnabalean?

: Bai, jendea jantzitzen zen, poliki jantzitzen zen!

Batzuek dukesak, besteak El gordo y el flaco...

Karrozik ez zen izaten, biñon jendea, jende asko. Eta esaten zen: Ezaguna!

"GAZTE IZANAK"

H: Bizi guzian jo duzu txistua. Orain ere jotzen duzu. Badakigu "Gazte izanak" deitzen den taldea jotzen duzula...

: A: Bai, 86an eman genuen lemixiko kontzertua, Donostian, San Bizente elizan.

Bai, jubilatua biltzen gela... Esan ziguten Donostiko zaharren artean ia nahi genuen jo. Ta Oiarzuneko txistularia hasi zen galdezka...

Aretxabaletakoa, Zarauzkua, Billabona-koa... herri askotik. Orain dela gutxi Donostian izandu gela bi aldiz. Homenaje bat egin ziguten guri Teatro Principalean, abenduaren hogeita-batean. Horek ez du inportantziarik, una actuación más...

Eta boza alfixatu gabe, inportantziarik ez duela esanez segitu du lanean, partitura artean, etxetik atera gerenean.

I. ETXEBESTE
Tx. SAGARTAZU

GARAI BATEKO INAUTERIAK

Ondoko lerrotan Florentino Portuk bere gazte denboran nola ospatzen ziren inauteriak kontatzen digu. Berari uzten diogu hitza...

Inauterien aurreko astean, arratsaldero, danbolina jotzen zuten Herriko Etxeko arkupeetan.

Ostegun Gizenez goizeko Betan jotzen zuten, eguerdiko 12etan eta arratsaldeko Betan, eta egun horretan txistorra jaten zen etxe guztietan.

Inauteria guztiak Kale Nagusian gertatzen ziren. Igandean, astelehenean eta asteartean gora eta behera ibiltzen ziren mozoorrok eta handik igarotzen zen jendeari konfiteak botata honela galdetzen zioten: "ezagutzen nauzu? ezagutzen nauzu?". Bitartean musika bandak bere doinuak joz bazterrak alaitzen zituen.

Neska-mutikok mozoorren atzetik ibilki honela kantatzen zuten: "máscara be, be, be, / el culo se te ve, / arrasca la pared, / con azúcar y café.

Arrantzaleak, zamarrak eta eskalaproak jantzita, mozoorrik gabe. Portutik igotzen ziren eta Pasaderan jarrita hantxe zeramaten kanaberaren pitan pikua loturik haurrak zirkatzen zituzten pikua ahoz hartu zituzten. Neska-mutikok, zer esanik ez, pozpozik aritzen ziren.

Sokamuturra ere izaten zen. Zazena Herriko Etxeko arkupeetan daogen burdinazko anillon lotzen zuten.

Gauza ikusgarrienetako bat "turista ingelesa" rena izaten zen. Turis-

ta nere anaia Pepe izaten zen eta Florentino Etxegoien gidaria.

Turista, inauteriak gal-gal zeude-nean iristen zen Hondarribira bere "Bademekaerra" aldean zekarrela eta arropa xebebrez jantzita.

Santa Mariaren Atea igaro bezain laster inauteri giro zalapartatsuan murgiltzen zen gure turista ingelesa. Berehala, cicerone hondarribiarra hurbiltzen zitzaion eta bion arteko elkarrizketa sortzen zen, hitz frantsesez, ingelesez eta euskaraz, sekulako keinuez lagundurik.

Turista eta gidaria astiro etortzen ziren Kale Nagusian gora eta etxe dotoreen parean gelditzen ziren. Haien aurrean ciceroneak, historiariak tutik ere ez zekieliarik, sekulako kontakizun harriarriak asmatzen zituen.

Begira zeuden ikusleak algaraka egiten zuten farre Etxegoien hitaldia entzunda eta nere anaia Paperen keinuak ikusita.

Inauteri astearte batean, ordea, benetako ingeles bat agertu zen Kale Nagusian. Florentino Etxegoien irriparez hurbildu zitzaion, "gidaria" renari jarraipena eman asmoz. Ingelesak hariari eutsi zion, bertan zeudenen pozatseginetan, eta Udaletxearen parera iritsi zirenean orain okindegia dagoen lekuan aurrean gelditu ziren. Garai hartan bi etxe eder zeuden han, gero, gaur dagoena jasotzeko, desegin zituztenak. Etxegoien etxeen historia asmatzeari ekin zion eta jendeak ezin eutsi zion farreari. Turistak, patxada galdu gabe, ozenki eta euskaraz esan

zuen: "orain etxe hauen historia nik kontatuko dizuet". Eta gertaerak eta urteak euskaraz aipatzen hasi zen entzule guztia txunditurik eta aho zabali utzita.

Etxegoienek, atzean gelditu gabe, eta euskaraz ere erantzun zion: "Ondo da, jauna! Nahi baduzu jarraituko dugu, baina alderantziz ariki: orain gidaria zu izango zara eta ni turista".

Gogoan dauzkadan inauterietan onenetakoak izan ziren haiek!

Anjelusa jotzean, amezkila, mozoorrok kentzen ziren, baina musikak gauerdia arte irauten zuen. Parrokian desagabiozko elizkizunak egiten ziren.

Miramar jauregiko lorategian zegoen aretoan antzerkiak izaten ziren eta bertara teatroaleak joaten ziren.

Miramar jauregiak eta haren lorategiak gaurko egunean Postetxearen aurreko lorategia, Bernard Etxepare kalearen zati bat eta Miramar etxea dauden lekua hartzen zuten.

Oroitzen naiz Inauteri astearte batean hotz ikaragarria egin zuela eta Kale Nagusian musikoak bakarrik ginela. Halakoa zen hotza! Errekintua jotzen nuen nik. Zuzendariak, Enrike Berroteran, joaldia suspenditu eta etxera aldegina genuen denok.

Gaurko egunean, zenbait gazteren jaskera eta itxura ikusita farre egiten dut nere gaztetango inauteria alai haiek gogoratutik...

SORKUNDE

Hondarribian, 1988.ko urtarilean.

FLORENTINO PORTUK BESTE BI LIBURU HONDARRIBIKO HISTORIAZ

1975. urtean eta Hondarribian izan ziren Euskal Jaiei 50. urteurrena ospatzeko programaren barruan, Florentino Portuk "Fuenterrabia, Notas históricas y curiosidades hasta 1969" izeneko lana eskaini zion Udalarri. Hondarribiaren historiari dato jakin garri haiek makinaz idatzitako 2.134 folio betetzen zituzten, sei liburu loditan enkoaderaturik.

Egun artan Florentinok bere lanari jarraipena emango ziola agindu zuen. Baita kunplitu ere!

1987.eko abenduaren 24ean goizeko hamarretan Udaletxeko Areto Nagusian, famili arteko giro atseginetan Hondarribiko ohar historiko eta jakin garrien 7. eta 8. aleak utzi zituen Alfontso Oronoz Alkate jaunaren eskutetan. Alkatearekin batean Manuel Larraite lehen alkateordea zegoen eta bigarren alkateorde eta Kulturako lehen-dakaria den Kontxita Portu, aurkeztutako lanaren egilearen alaba hain zuzen ere.

Florentino Portuk idazki bat irakurri zuen Udal Batzari zuzendua liburuaren eskaintza eginez eta onartzeko eskatuz.

Alkateak eskerrak eman zizkion Hiriaren izenean egindako lanarengatik eta Udalarri eskaintza honen berri ematea agindu zuen, eta liburu hauek ere, aurrekoak bezala, Artxiboan egon-

go direla herriko ohiturak hobeki eza-gutur nahi dituzten guztientzako aukeran.

Besteak beste, liburu hauetan aipatzen diren gai batzuk hiriaren zabal-kunde, irakaskuntza arazoak, fuer-tea, baseri desagertuak, garraioak eta abar ditugu, lehen idatzitako gai bat-zen osagarriez gainera.



EUSKAL JARDUNALDIK

Abenduaren 11, 12 eta 13ko asteburuan Euskal Jardunaldiak izan genituen Hondarrribian.

Ostiralean, "Kareletik" filmea bota zuten Ama Gualupeko ikastetxean eta filmearen bukaeran Andu Lertxundi, filmearen zuzendaria, izan genuen ikusleen galderak lagun arteko giroan erantzuten.

Larunbat arratsaldean "Jostaldi" polikiroldegian Txirri, Mirri eta Txiribiton. ETBko pailazo ospetsuak, izan genituen. Hau zela eta, inoiz eduki duen betekadarik handiena ezagutu zuen frontoiak, haur eta guraso erruz etorri bait ziren. Momentu batean atak itxi beharko zirela pentsatu bazen ere, azkenean denentzat izan zen lekua. Pailazoak berak ere pozik geratu ziren jendearen harrera eta protaeragatik. Egun berean, afaria izan zen Marlaixan Imanol Lazkano eta Iñigo Eguren txiste kontaketa goizeko orduiak arte aritu zitzaizkigularik. Bat baino gehiago larri samar ibili zen farrearen farrez hesteak lehertu beharrez. Hura zen etorrria eta kolore guzietako umore jarria bi lagun haiena!


Igande goizean Udalak "Bordari" Saria Martxel Mariskali ematea zela eta, bertsolariak izan genituen Ama Gualupekoan: Euskitze, Gorrotxategi, Peñagarikano eta Sarasua, gai-jartzaile Txomin Sagarazu zelarik. Arratsaldean, berriro bete zen frontoia, pailazoekin adina izan ez bazen ere, Oskorri eta Kukubiltxo taldeak entzun eta ikusi gogoz. Kantariak eta mozorroek giro bizia lortu zuten ikuskizun ederra eskainiz jardunaldien bukaera gisa.

Igande bertsolariei entzundakoen erakusgarri, Xabier Euskitzek bakarkako saioan botatakoak aldatzen ditugu hona. Arantxa Arrutik bilduta. Hauxe zen gaia: "Gizona armak desegiten hasi da..."

1. Nahiko bitxi den berri bat heldu da Euskal Herrira baina ez nago irripartsu dakarten hoiel begira "yanquik" eta "rusoak" armak desegiten beharrik ez zen izango aurrez egin ez balira.

SOLASAK
eta
JOLASAK

2. Pakezale asko ditu bere menpe etsipenak lurperatuz ikusirik hemen ahalegin gehienak milioi asko ta asko direnez alferrik galdu direnak zer esango du Etiopian gosez hiltzen ari denak.
3. Hala ere paktu hori ez zen lanik errazena azkenean aitortzen dut bidezko eta zuzena ea lehenbailehen uxatzen dugun arma txar hoiel eztena pauso txiki bat eman da baina ez bedi izan azkena.



(DV, Lusaren argazkia)



Gaurkoan San Pedro kalean gabiltza.
Bi marrazkien arteko diferentziak 11 dituzu.
Zenbak denbora behar duzu denak surkitzeko.

Oraingo honetan Biteri Eskolak eskaintzen dizkigu bere lanak...

BASERRITARREN GABONAK

Eskola ondoko lau baserritara joan ginen ("Ttakenea", "Zigarre-enea", "Bottika" eta "Anburunea txiki") ea gabonak nola ospatzen zituzten jakitera. Honoko galderoi erantzun hauek eman zizkiguten:

- Gabonak direla eta etxea apaintzen al duzue?
- Bai, jaiotza eta arbola jartzen ditugu.
- Zer zuhaitz mota erabiltzen duzue?
- Izeia da normalki jartzen duguna.
- Gabonetako afarian zein da etxean prestatzen den plater nagusia?
- Karakolak afaltzen ditugu.
- Ez al duzue indoiarrik erosten?
- Ez, ez dugu ohitura hori.
- Zuek bakarrik afaltzen duzue ala beste ahaidetuekin biltzen zarete?
- Normalki beste familiakoekin egiten dugu.
- Afaldu ondoren nola pasatzen duzue denbora?
- Kantatzen pasatzen dugu gaua.
- Opariak nola ekartzen ditu, olentzeroak ala erregeek?
- Erregeek ekartzen dizkigute.
- Olentzeroarekin joaten zarete atez ate lehen joaten zen bezala?
- Urte zahar gauean bai. Eta gau horretan pandereta eta akordeoiarekin abestera ateratzen gara.
- Eta kaserotz jantzen zarete?
- Bai, noski, kaserotz jantzia ateratzen gara.
- Eta kaserotz jantzen zarete?
- Datorren urtetik ezer espero al duzue?
- Bai, pakea, lana eta osasuna.

Biteri Eskolako 4. Mailakoak

JAIZKIBEL

Mendi ikaragarri hau Hondarribitik Paisairaino iristen da. Bere azpikaldean fruitu eta lur emankorrak ditu, beratz ederrak sortuz. Gure mendi hau lehen basoz betez zegoen, baina orain gutxi batzuk besterik ez dira geratzen. Foru Aldundia Jaizkibel, lehen zegoen bezala utzi nahiez, zuhaitzez betetzen ari da. Oraindik guk ez dugu ezer ikusten zeren eta beste aldean ari bait dira lurra hobetuz delako.

Lehenengo pinuak, gaztainondoak eta haritzak jartzen dituzte. Honela, pinuek azkar haunditzen direnez, gaztainondo eta haritzetaz babesa eta aterpea ematen diete; gero pinuak moztu eta gaztainondo eta haritzak bakarrik geratuko dira. Lan guzti hau Aldundiak egiten du Jaizkibel mendi zaindu bat delako eta urtero hemen dirutza haundia inbertitzen du.

Jaizkibelek gutxi gora behera 525m. ditu. Bere erdialdean pausaleku edo ostatu bat dago, bigarrean dorrearen ondoan. Hondarribiko aldean faro bat dago inguruko marinelak nondik dabilztan jakin dezaten eta arkaizten kontra ez joateko. Faroaren azpian bainaleku ederrak daude hemengoa jendearentzat.

Bertol, 8. Maila



Lehengo Viteri eskola.

GURE ESKOLARI

Hondarribi den herri batean eginga dago Biteri. Zaharra bota ta berria egin hartu zuten erabaki. Ideia ona iruditzen zait egin zuten guzti hori, zeren ta orain hemen gaude gu ikasten danok ederk.

Hortik gabilta eskola danak kirolen bat praktikatzan. Han eta hemen Biteri dabil kirolean irabazten. Batzuetan bai, besteetan ez, bainan ez gera tristetzen. Gora Biteri!, Gora Biteri!, A zer nolako ikastetxe!

Simon, 8. Maila

BITERI-ESKOLAKO KIROLAK ETA EKINTZAK

Gure artean nahiko kirolari onak ditugu. Horregatik eskolak txapelketa ugari antolatzen ditu. Hauek dira batzuk: futbola, saskibaloia, xake, toka, sokatira, lokotsak, zaku lasterketak, eskubaloia eta.

Kirolen gaia aparte utzita beste ekintza batzuk kontatuko ditugu: 8. Mailakoek Santo Tomas egunean txistorra goxoa prestatu ziguten. Hauen helburua kurtsio bukaerarako bidaiarentzako dirua ateratzea da. Honetaz aparte ere errekoek guztietan tortila pintxo goxoak egiten dizkigute helburu berdinarekin.

Asmakizun lehiaketak ere egiten ditugu. Nola diren lehiaketa hauek? Ba, begirara... gela bakoitzak asmakizun bat prestatzen du eta eskolako sarriaren jartzen da. Parte hartu nahi duenak papertxo batean idazten du asmakizunaren erantzuna, eta gero kaxatxo batean sartzen du. Ostiraleko zozketa bat egiten da. Bertan saritua ater da dena —paperaren jabea— denon aurrean asmakizuna eta bere erantzuna zuzenki esan behar du. Horrela gertatzen bada, opari bat ematen zaio; bestela beste bati emango zaio aukera.

Hauek dira gure ekintza batzuk. Politak iruditzen al zaizkizue? Baietz uste dugu.

6. Mailakoak

Kaletik zihono gizon bati txori bat katu zitzaion buru gainean. Eta, gora begiratu, honela esan zuen:

—Eskerrak behiek ez dutela hegan egiten!

1. Maila



HONDARRIBIKO ARRANTZALEAK

Gure herriko gizon gehienak arrantzaz bizi dira: Txitarroa, atuna, berdela, legatza...

Gure arrantzaleak bere itsasuntzia arraiatz beteta ekartzen dutenean Done Pedronen kofradian gelditzen dira arraiak han uzteko. Han pisatzen dituzte, prezioa jarri ondoren arraindegietara eramaten dituzte eta handik gure etxetara. Arrai asko baldin badago uretara botatzen dituzte, baina ez pentsa hainbeste lan egin ondoren nolahi botako dituztela!

Atuna baldin bada eta asko badago jeltzen dute, baina txitarroa uretara botatzen dute.

Hondarribiko emakume asko Done Pedronen kofradiara joaten dira, eta han arrai pisatzen eta garbitzen dute. Beste emakume batzuk sareak josten dituzte ere.

Kaia jela egiten dute eta ondoren itsasuntziei eta arraindegiei saltzen diete. Arrai saltzeko subasta edo enkantea egiten da: diru gehiana eskaintzen duena arraiakin gelditzen da.

Itsasuntziak konpontzeko, garbitzeko eta margotzeko karrua erabiltzen da, eta hontarako jendeak txanda bat jarraitzen du.

7. Mailakoak

Aurreko zenbakian nekazaritzari zuzendutako atalean, Europako Ekonomi Elkartean sartzeak Euskal Herriko baserriarrei batere emaitza onak ez zitzaizkiola ekarri aipatzen baldin bagenuen —batez ere txikiei—, oraingo hontan zertxobait interesgarriagoa izango diren berri pare bat edo bizpahirurekin gatzoz.

Europa laguntzak

Halaxe da, mendi aldeko nekazaritza dela-ta (Agricultura de montaña delako), Gipuzkoari, datorren bost urtetan 3.000.- milioi pezetako tokatu omen zaizkio, E.E.E.-k nekazaritza eta batez ere abelzaintza suspertzeko emango duena. Dirudi duenez, esnea sabrakina bait dago Europako txoko gehienetan... Horrela bada, E.E.E.-k FEODA-ren bidez eskeintzen duen laguntza ez da batere desestimarria eta gehienok kontutan hartu beharko genuke. Gisa hontan, 1.988 urte hontarako ardi ernari edo ume egiteko dagoenarengatik jaso daitekeen dirua 2.500.- pezetetara igotzen omen da; zekor bakoitzeko berriz 3.500.- pezetara iberak 200 kilotik goragokoak izan beharko direlarik urtean esplotazio bakoitzeko 50 buru baino gehiagorena jaso ezingo delarik.

Esnearen Institutoa

Europako Ekonomi Elkartean sartzeak ekarri digun beste ondorio ona, esan daiteke, esnea analizatzeko Zentru propioa sortzeko posibilitatea dela. Zentru propioa esaten dudanean, esan nahi dut, ez dela egingo orain bitartean egiten zen bezela Gurelesan edo esnea elaboratzeko zentruetan, baizik eta aparte, edo ondorioz, Gurelesak edo beste edozein etxeek asumitu egin beharko duela "Esnearen Instituto" honetan egingo diren esneazterketen emaitzak. Erakunde hau, baserriarren, Esne-zentralen, Diputazioen edo Kamara Agrariako ordezkari

rien artean osatuko dute eta ziuraski Usurbilen dagoen Fraisoro finkan kokatu da. Hasiera batetan hego Euskal Herriko lau probintzietara zabaltzeko deia dago eta behar bada Errioxara bai.

Badirudi, gauzak poliki-poliki aldatzen doazela eta maila hontan E.H.N.E. sindikatuak izan duen eragina ere gauza nabaria izan dela begibistakoa da. Nolanahi ere, hemendik aurrera, orain bitartean egiten ziren azterketak baino garbiagoak izango dira eta baserriarrek askozaz lasaia geldituko dira, zeren eta gaur arte egiten zenarekin oso fidatua izan behar zenuen, Gurelesa berak egiten bait zuten analisi horiek, beste inork kontrolatu gabe, eta jakina, kontrolatik ez dagoen tokian...

Diputazioaren laguntzak

Europatik datozen laguntza horiez ganera, ez ditugu ahaztu behar Diputazioaren Nekazaritza Saila berak daukan dirulaguntza-Plangintza. Gisa hon-

tan, aurtengo urte hontan, bideak konpontzeko 2.640 milioi pezeta zuzendu ko ditu, baserrietara argia eramateko 155 milioi, ura sartzeko eta nekazal esplotaziotarako 560 milioi, telefonojartzeko 145 milioi, larreak soro bihurtzeko 280 milioi etab... Diputaziotik altxatu daitekeen dirua bestea ez bezala, "hura a fondo perdidu izango da" Diputazioak kreditua ematen du %6ar edo eta beste gainontzerakoa bera ordaintzen du, alegia, entitate ofizialak kreditu edo mailegu emateaz ko bratzen duten diferentzia organismoek ordaintzen duela.

Dena dela, dirulaguntza eta subentzio interesgarri hauek informazio zuzenagoa eta zehatzagoa nahi baldir baduzue, jo ezazue Eskualdeko Bulegoera (Oartzun, tfnoa: 355700) edo bestela Diputazio berara (Nekazaritza Saila, Tfnoa: 290011).

J. J. Bereau



ARRANTZA

Azken urte hauetan bezalaxe, aurtengoan ere arrosetik ez zaigu arimatu bentara. Denok genuen esperantza Eguberri-jai hauetan arrosela probatzeko baino ez dugu kutizia betetzetik izan. Arrosela jan duenak asko pagatu jan beharko zuen.

Dena dela, urteroko aginaldori, baikailo eta olioz hornitutako aginaldori ez zaigu faltatu. Ohitura zaharrari eutsiz gure arrantzalek oso gustora jango zuten (baino).

Abenduko arrantza exkaxa izan da. Zerbait aipatzekotan prezioen gorakada izan daiteke, urte guzian baino askoz goragotik ibiltzen bait dira sasoi hontan. Legatza 3.200 pezeta egite-ara iritxi da, mediana 1.700 pezeta eta peskaila 1.400 pezeta. Ekarki dituzten arrosel aleak 2.500 pezeta eta 3.000 pezeta bitartean saldu dira.

Bestalde, txitxarro franko sartu da eta bere salneurriak gora egin du, 150

ARROSELA, DATORREN URTEAN BEHARKO!

eta 300 pezeta bitartean ibili da.

Ez daukatz ahaztuak 1981 eta 1982ko arrantzak. Gure kaian 20.000 kilo arrosel sartutako egunak asko izaten ziren. Saldu ere errezago egiten zen, 400 eta 600 pezeta bitartean ibiltzen bait zen bere prezioa. Urte haietan arroselaren arrantza abenduaren hasten zen eta bere sasoirik onena urtarrila eta otsailaren erdia izaten ziren. Hilabete hauetan eta zenbaitetan geroxeago ere bai, legatz asko harrapatzen zuten. Orain berriz urtarilaren erdira arte ez da legatzik agertzen.

Azken egun eguraldiak ez die lagundu gure arrantzaleei. Itsasontziak etxean daude tenporala dela medio. Hau ez da egun batzuen galera bakarriz izaten. Baina itsasontziak horrelakoetan itsasoratzen direnean beren lan erramintak galerazita dauden lekutan botatzeko, horrela testigurik gabeko egunak aprobetxatzen dituzte, inor ez er esan gabe beren erara arrantza

egiteko. Ez litzateke lehenengoa izango, gure itxasontziak arrantza egitera joan eta legezko ez diren erremientekin arrantzan ari direnekin hantxe topo egitea.

Nik uste, jartzen den baino arreta gehiago jarri behar litzateke, egungo lege eta debekuak kunpli eta errespetu ditzagun. Bestela, luzatu gabe galdu egingo bait zaizkigu gaur oraindik gure kaladeroetan harrapa ditzakegun arrain motak. Era hontako arrantzatik dator gure arrantzaleen eguneroko ogia.

Gaur, urtarriak 8, lanerako lehen eguna. Lehen esan dudanez bezala, itsasoratu bezain laister arrantzarako trabagarri diren baliza ugarirekin topo egin dute. Beraz, ezin esango dugu urtea oso ongi hasi dugunik.

Andres

TXAPITELAKO HARRIA

Hondarribiko espigoitik Bidasoaren bokalera begira jartzen den turista askorentzat, harrigarria da ibai hau bitan zatitzen duen marra zuri-txukun batean arrastorik ez ikustea.

Eta marraren gainean karabinero batzu ere!

Egitazko mugaren seinaleak hauek baitira gaur egun, bandera eta guzti.

Hendaiaetik Hondarribia begira dau-denak modu beretsuan pentsatuko dute.

Mugak, non nahi, badu halako misterio kutsu bat.

Gure ibaiaren mugapenak badu, alde batetik, historia bat, eta, bestetik, sorrerako misterioa ere. Lehen puntutik: 1) Historia idatzia Akitania-Vasconia ezagutzen du aurrea ibaiaren eskuineko bazterrean, eta Vasco-

nian soilik ezkerrekoan; 2) 1152an ezkontza bidez, Akitania eskualduna dena Ingalaterrako Koronapean geratzen da, eta ingelesak ditugu ofizialki ifarraldean hiru gizaldiz, 1451 arte, biztanleak eta bertako erakundeak eskualdunak badira ere; 3) gero, ingelesak eta prantesak konpontzen direnean, frantsezen koroipean ageri da lurralde hori, nahiz eta orain eta beti hor bere erakundeekin bizi direnak eskualdun berak ari lanean.

Laborantzane eta arrantzan.

Hegoan, euskaldunak beti, hauek Gaztelaren monarkian sarturik, eta Nafarroan.

Makropolitikako gora-behera hauen azpitik eta barrutik, Unamunok infra-historia deitzen zioen adierazgarri den zerbaitek jarri duen marka bat geratu da Bidasoa inguruan bizi den gizarte-historian: **Txapitelako harria**.

Mugarri hau Enderlazaratik gertu, ibai-bazterrean, harkaitzaren gainean zutik. Hondarribiar eta lapurditarrek batera jarri zuten, eta inork ez daki noiztik, latinez (garai hartan sinesgarria izateko beharrezko zen latinez gauza serioak esan): **ab initio mundi**; euskaraz mundua mundu zenetik, esango genuke; eta zera adierazteko: hau da Lapurdi eta Gipuzkoaren muga, eta Hondarribiko eta Hendaiaiko itsasoko marea bi-zienek honeraino iristen direnez gero, ibaiaren bokaletik honarte kokatuak dauden herriek izango dute ur hauetan arrantzan egiteko eskubidea.

Hau da Harri honen esan nahi nagusia hasiera batean.

Geroztik egin da tratu ofizialik: 1856-1857; baina XV. gizaldiaz gero paperetan agertzen den mugarri hau, Txapitelakoa, da muga internazional faltua izango denaren oinarri.

Martin Ugaldé

JAIOITZAK

AZAROA

- 23: ALOIXE Alonso Marques. Gurasoak: Arturo eta M.^a Luisa
30: ANDER Egimendia Olazabal. » Fco. Javier eta Purificación

ABENDUA

- 3: JON Zuzuarregi Lizarazu. Gurasoak: Juan Leon eta Inmaculada
2: SANDRA Castro Navai. » Juan eta Tamara
4: ALAI Amadoz Kerejeta. » Benito eta Izaskun
12: IGOR Olaskoaga Gracia. » Jose Bernardo eta Amaia
11: HODEI Fernandez Arretxea. » Antonio eta Antonia
14: JON Ladrón de Guebara Lasarte. » Jose Manuel eta Begoña
15: IZASKUN Agirre Loidi. » Santiago eta Begoña
15: SAMANTA Costa Ezeiza. » Jesús eta M.^a Angeles

URTARRILA

- 5: IÑAKI Arruarte Arretxe. Gurasoak: Jose Ignacio eta M.^a Jesus

DEMOGRAFIAREN

EZKONTZAK

ABENDUA

- 5: Ramon Ultrilla Minguez eta Magdalena Arana Portu
5: Adolfo Santos Tabernero eta M.^a Aranzazu Mailló Garcia
5: Pedro Ramon Amunarriz Txakartegi eta M.^a Jose Tife Larrosa
5: Fco. Javier Lozano vicario eta M.^a Koro Bidaurreta Bernal
11: Jesus Costa Martinez eta M.^a Angeles Ezeiza Txapela
12: Pedro Lapitz Gonzalez eta M.^a Teresa Etxebeeste Rekarte

URTARRILA

- 5: Alejandro Elduaien Uranga eta M.^a Begoña Fernandez Enparan
13: Jose Ignacio Lekuona Emazabel eta M.^a Izar Genua Goikoetxea


HERIOTZAK

ABENDUA

- 9: Jose M.^a Castrillon Revuelta Mendelu (Villa Juanita).
15: Gregorio Zapiain Amute Auzoa.
20: Angel M.^a Zamora Goikoetxea Zubieta Kalea

URTARRILA

- 7: Angel Zamora Zuzaitz Almirante Alonso (Gure Kaiola)
9: Jesus Igarza Imaz Amatxo-enea
14: Ignacio Zunzundegui Etxeberria Garaikoetxea Baserria



Kanposantua handitzeko lanak.

ERROTAKO GIRIXIAN

JARRAIPENA

Maldan betti, ordubiak baino lehen errota aurreko zokoan ziren sei lagunak inolako endredorik gabe. Ez zuten horrelakoetan elkarri deus esan beharrik izaten, denek bai bait zekiten, ongi aski jakin ere, bakoitzaren eginkizuna.

Errotaetxeak bazuen garai hartan gaur ez bezalako betebeharrak: errotaarena, hain zuzen, eta eta taberna izatearena, orain ezagutu dezakezunez, baldin bazoaz. Dena dela, gaur ez zen inor bizi gehienetan eta zukurrik ere ez zegoen, zorionez, inoren ustegabeko presentzia zaunka erotan salatzeko.

Erratak, errota izango bada, ura behar eta mendi maldan betiko errekaetakoak bazeaion, asko ez baina, aski indar inguramarko baserrietako arto-gariak eliotzeko. Talak eta ogi zuria bazuen garai hartan estimarik gaurko partez!

Ez da inguruan harkaitz faltarik, Kantauri kosta zabal guzian bezala. Bat, ordea, errota ondoan, arestiko errekaetako tarteko delarik, bada galanta eta haren babesean exeri eta gorde ziren Pako eta hiru baseritarak, guretat berriak direnak.

Fernando eta Bottikak bazuten bestelako zereginak. Lehenbizikoa, errota atzeko arroketa abiatu zen, ur aparren gainetara erdi bustika, maria bat zegoen, zehar-zehar gorringolen pare filigranak eginez, 200 bat metro aurrerateraino. Handikoxe muturretik berak somatuko zuen lehen-lehenik espero zuten bottia. Bottikak, aldi, potoroak uretan bezala kapen egin zuen ilunpetan: mendira jo zuen atzera, berak solik zekitzaketen bidexka eta malkarratan gotti, arratsean jarritako horien begiratza.

Atergi zegoen iadanik. Haizeak, furuila-furuila, hots eta hotz eta usain gazi.

Laino mehea denean, badirudi hemen bertan dena ez baina harago badela erruz, dena estaltzeraino. Gausaz areago, noski. Bada, halaxe zuten gure mutleik: inguru gortukoak ikusten ahal zuten denek, baina metro gutxitatik aurrera totik ere ez.

Gauak ez zuen, beraz, izarririk, ez ilargi bistakorik ere; dena zen ilun zurikoa. Dabilenak jakinki guzti honen berri...

Harkaizpeko lau gizon gazteek, erdi-etzanik edo pikotxean jarriak, zai egon besterik ez zekuten, bi lagun joanek zeinek zer berri ekarriko. Ordurarte sekula okerrik ez zitzaizien gertatu eta oraingoan behar ote zuen, bada, prezio...? Arrats giroa aldeko izana zuten. Hala eta guztiz ere, inor, madarikatu arriaren bat baldin atzetik zelatan ibilti buztzen ere, gauak ez zion, ez, askorik laguntzen laino eta lur bustiz. Aski ziken izorratzia...

Ez zeukaten, beraz, zertan kezkaturik. Lastima zigarrorik sutu ezina... bestela...!

Minutuak aurrera egin ahal orduak kalara gainera.



Errotako kala.

Ordu erdi luzea iragoa zen iada Bottika ilunpetan galdu zitzaientetik eta luze esten hasiak ziren la bilduak:

—Zertan ari ote duk horrenbeste denbora...!?

—Langile txarrak kaka luze.

Farrak derriorez ito behar.

Hau esan batek eta, arrokatzararen atzekaldetik Bottika agertu, dena bat! Ez zekarren aurpegi goxorik.

—Ez diagu gauza onik! —hasi zitzairen zalapartaka—

Hiru hari jarritatik bi puskatuak zeudek. Norbait ibilti duk inguruan, erredios...!

Akoko hango broma eta txantxo giroa. Arrisku latzean egon zitezkeen harpeetako karabiniarrok (agian zerait somatu eta) ezkutuak begiluzaka baldin bazituzten.

—Zuek segi hemen —esan zien Bottikak, artean lauen aurrean erdi makur— eta ni bainak derrepente Fernando jakinarean gainean jartzera. Porsiakaso ere, ez dadila bottia honaraino sartu. Laister itzulik nauk. Kontu hartzue...!

Laino eta ilunetan arin galdu zitzairen berri gau ibiltzar bizkorra errota atze eskuinte aldetik. Kala girixiaren ezker aldetik, zertxobait bustiagatik, arrokaz arroka, egunargitako ahuntxumen gisan, berehala elkartu zen Fernandorekin. Hantxe zeukan, jakineko haiztula altuan makur-makur, hotz egiten zuenik konturatu ere gabe.

Gauaz lainoek eta nondibaiteko ilargiak sor ditzaketen kapritxoak jokuak asma ahal besteokak dira kosta bazterrean.

Ahatik, bistak ez zuen hiruzpalau metro baino luzeagorako ematen. Belarrik behar ziren han tente eta atent uretatiko zernahiren berri jaso ahal izateko.

—Zer dik honek hemen? Hau sustua...! —bere arloan Fernandok, piska bat zutizen zelarik.

Bottikak, entzun balio bezala, honela jarraitu zion belarrira:

—Haria puskatuak ttuk hirutik bi. Hori ez duk normala, alajaina! Harpiaketakoak

mugitu direla seinale! Lasaiagi ibili gaittuz baina onian ez gaituzte begiz jo. Hala bada, graziak...!

—Zakurren putzel! Gu ta gu ta gu, azkenean gurugu, moroek irabazi eta guk galduldu.

—Zer?!

—Deus ere ez. Kaka zaharra! Asmoz aldatu beharko diagu badaezpada.

Ez zen han berriketaroko modurik eta ez astirik ere; auri zuten bottia muturren aurrean arrau eta plaxt, Adierazi zion, halere, hitzunak gorri eginkizuna; lan haundirik gabe adierazi ere, ze aurrez ongi deli beratua bait zuten horrelakoetan nola joala. Inprobaxazio jakina, beraz.

Zalu itzuli zena atzera lau lagunetara Bottika, lima eta harri ligituetan hankarik jarri gabe. Ilunak eta lainoak ilagun ala etsai, orain batek jakin...! babestzat harturik, inolako arazorik gabe oraingoan ere urreratu.

Hantxe zeukan laurak (lurpe zuloko kabin erdikumeak arerio ezezagunaren beldur nola...? bada, halatsu) laurak, diot, kildurik, harkaitz zokoaren kontra lehen baino ere bilduago eta zapuztuago...

—Asmoz aldatu dik Fernandok. badaezpada. Ez ditek gaur bottia errota ondian ustuko. Haiek beuden lanetan ari diren bitartean, badakizia, bi-hururak sakabana gaitzen gu eta atzera itxera bezala plantatu egin behar diagu, geroago oexetetik zeharka (honara arimatu gabe, gero, ojoll), hangoxe itsas kontratik, tontor honen gibelera ertatzeko puxkak erretiratzera. Errexulla dagoen puntura, bale? Pako, hi nerekin heldukiyaz. Hemendik ordubetara baino lehen elkartu behar diagu esandako arroka zuloan. Binbitartian, argil mutiak...

Konforme ziren denak. Esan bezala atzera ziren bostak lehenago ekarritako bide-tiki gotti, katuak ganbara zuloan baino kanka soinu mehe eta apalagoz.

Euri txintxarra hasi zuen...

(Gauko lanak ez dira motzak beti. Halere, hurrengo HONDARRIBIA alean eguna argituko duela agintzen dizut.)

Jesusmari Mendizabal

KIROLAK



Lehen Maila Regionaleko taldea.



Bigarren Mailako taldea



Ohorezko Mailan dagoen jubenilen taldea

HONDARRIBIA FUTBOL ELKARTEA

Lehen Maila Regionalean jokatzeko duen taldeak, ondorengo urteetan Hondarribiko koloreak ondo defendatu nahirik beste sei jokalar berri hartu ditu jubeniletatik, gure jubenilen talde hau, aurreko denboraldian Gipuzkoako Lehen Mailako Txapelketa izan bait genuen.

Eta harrituta geratu gara, Txapelketa honen lehendabiziko buelta amaitzean gure ekipoa zerrendako burua dela eta goragoko mailara igotzeko esperantza haundiak dituela ikustean.

Horretaz gainera Bigarren Maila Regionalean ere badago beste talde bat, Jubeniletan jarraitzeko adina gaitzen duten gazteena eta hauek hemen prestatu ahal Lehen Mailako ekipora igarotzen dira.

Jubeniletan ere bi talde daude eta hauek Infantiletatik hornitzen dira, Infantilak berriz, Hondarrabian eta Irun-go El Pinar et San Miguel Auzoetan antolatzen diren eskolarteko txapelketatik.

Lehen Mailako ekipoaren entrenatzailea Jabier Vallejo da eta oso pozik dago denboraldi honetan egiten ari diren lanarekin, "PREFERENTE" izeneko mailara igotzeko esperantza bait du.

Bigarren Maila Regionaleko taldearen entrenatzailea Jabier Garmendia dugu eta hau ere oso pozik dago bere mutilekin, lehenengo ekipoa "Preferente"ra igoko balitz hauek Lehen Maila Regionalera igaroko bait lirateke.

Ohorezko Mailan dagoen Jubenilen taldea, Txiki Sagarazak entrenatzen du eta lortuberria duen maila honi beste urtebetez behintzat eutsi nahiko luke.

Jubenilen Bigarren Mailako entrenatzaileen egitekoa, goragoko mailatan dauden taldeetarako jokalariek prestatzea da eta hortan ari dira Zuzaita eta Jose Ramon.

Miguel Jauregi, Infantilen entrenatzailea ere izugarri kanpaina ona egiten ari da eta ekipo haundietarako jokalariek prestatzen saiatzen da.


Hondarribia Futbol Elkartean 200 mutil inguru daude eta Realan jokatzeko Billabona, Pikabea, Erneri eta Martinez, Hondarribiko harrobi honek ateratakoak dira.

Hondarribiko entrenatzaile hauen nahia zera litzateke, hemen dauden mutilek, Realak fitxatutakoek adina trofeo lortzea.

Hondarribia Futbol Elkartean Zuzendaritza Batzordean oso jende gutxi dago, baina hala ere, Eskola-kirola antolatzen ari dira.

UDALA

Gabon aldiak bere eragina izan zuen Udal bizitzan ere. Ohizko bilera eta jardunei opor eta jai giroa nagusitu zitzaizkion. Giro horretan Olenzero lehiaketak, Gabon Kanta saiokak eta antzekoak izan genituen nagusi Udaletxeko arkupeetan. Arrakasta eta partizipazio handia izan zen ekintza guzti horietan, bai haurretan eta bai helduen aldetik.



Udal obren erakusketa Itsas Etxean.

Udal lanen erakusketa Itsas Etxean.

Urtarrilaren 2tik 10era oraingo obra eta asmoen erakusketa bat antolatu zuen Udalak Itsas Etxean. Guztira bederatzirei proiektu erakutsi zitzaizkien herritarrei: Kanposantua, Kasino Zaharra, Udaletxea, Zuloaga etxea, hondartzako polikiroldegia, Arma Plaza eta Gazteluarena, San Markos parkea, Mourlane Mitxelena eta Sainduarena. Planoak, irudiak eta irakurtzeko memoriak herritarren jakin miña asezteko aukeran. Horrez gainera hantxe ikusten genuen Rikardo Goloaga argibideak eman eta galdera guztiei erantzun zehatza emateko prest.

Carlos V Ostata berritzeko aurre-proiektua.

Udalak eskaturik Patxo de Leon arkitektoak aurreproiektu bat taxutu du Arma Plazako Ostata berritzeko eta honen ingurua, Arma Plaza barne, birmoldatzeko. Bai Gaztelua eta bai ingurua aski hondatuak bait zeuden azken urteetan.

Aurreproiektua Eusko Jaurlaritzara eta Turismo Ministeriozara bidali da diruketa ardurara daitezen, aurrekontua 333 milioitako pezetakoa bait da.

Asmo honen arabera, 20 bat gela gehituko omen zaizkio Ostatauari, eta beronen barrua eta oinarriak ere berrituko dira. Aspaldiko denboretan barrua eta oinarriak ere berrituko dira. Aspaldiko denboretan bazuela eta, telistua ere jarriko omen zaio Gazteluari. Arma Plaza oinezkoentzat bakarrik izango omen da, 40 berebiletzako lurpeko parking-a egongo da eta itsas aldera begira miradore bat.

Kanposantua.

Kanposantuko lanak abuztuaren hasi ziren eta gauzak agindu bezala joanez gero otsalean bukatu behar litzukete. Arkitektoa Jose Maria Alonso jauna da eta asmoa kanposantua beste horrenbeste luzatzea da 52 m. luzegoko eginez. Aurrekontua 90 milioitakoa da.

Hondartzako polikiroldegia.

Polikiroldegia aurreproiektua ere ikusi ahal izan dugu Itsas Etxean. Asmo hau 390 milioitak gora igo daiteke. Diputazioak % 60a ordainduko balu ere gastu handi samarra gurea bezalako Udal bantzat. Gogoa hartu behar da tokia oso berezia denez gero ezin dela inguru hori itsustuko lukeen edozein gauza ere egiri Eremu handia ez izan arren ongi aprobetxatzeko asmoa dago, bertan igerileku klimatizatu, eskubaloia, saskibaloia, boleibol, squash, aldagelak, kafetegia, e.a. egongo bait dira. Lanak 1988an hasiko balira, gehienak 89an egingo lirateke.

Azterketa soziolinguistikoa.

Udalak onartu berria du Siadeco elkarteari Hondarribiko azterketa soziolinguistikoa eskatzeko. Azterketa ahalik eta sakonena egin nahian 6.250.000 pezetara erabiliko dira. Hurrengo batean zabalago hitz egingo dugu urte osoan zehar egingo den azterketa honen garrantiaz.

EE-k bi zinegotziak aldatu ditu.

Patxi Barkaiztegi eta Bittor Aldabek, EKO zinegotziek, beren karguak utzi dituzte Hondarribiko Udalean, beraien ordezkariak Juan Pablo Landa eta Jose Juan Bereau sartu direlarik. Aldaketa honen hiru dira Korporazio honetan aldatu diren zinegotziak, lehen ere EA, In Prudentio Lekuonak Migel Tobarri utzi bait zion zinegotzi aulkia.

Amuteko kiroldegia.

Lehenengo lanak lurra betetzea, berdintzea eta drenajea egitea izan dira. Nahiko aurreratua doa fase hori. Lur hauak 6.295 m² dira eta joan den urtean erosi zituzten Udaletxeak. Aurrekontua 10 milioitakoa da. Bigarren fasean futbito tokia, pista bat, frontoi txiki bat eta aldagelak egingo dira.

J. A. Letamendia



Amuteko kirol eremuak.